

LEITZA / Leitzako liburutegiak bere eskaintza igerilekura eramango dute aurten ere

LEITZA. DV. Leitzako liburutegiak Nafarroako berrogei liburutegi publikoekin batera, uztailean eta abuztuan, irakurketa sustatzeko 'Murgildu zaitez irakurketan, 2007ko uda' programarekin bat egingo du.

Irakurketa sustatzeko eta bul-tzatzeko jarduera hau Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegien Zerbitzuaren bidez sustatu eta finantzatu da, dagozkion udalen laguntzekin. Horiek udal igerilekuetako beharrezko azpiegiturak eskura jar-tzen dituzte eta batzuetan errefortzu langileak kontratatzen dituzte.

Nafarroako Gobernuak jarduera hau garatu nahi duten udalerriei laguntzak deialdi baten bidez eman dizkie: ' 2007ko Nafarroako liburutegi publikoetan irakurketa sustatzeko jardueren programaziorako diru-laguntzen deialdia ' . Bertan, liburua susta-tzeko beste programen artean, ' Bibliopiscina ' jarduerari dagokiona aurkitzen da.

Sustapen eta hedapen elementu gisa, liburutegi publikoetan eta igerilekuetan 15.000 pin, 14.000 orri markagailu eta 1.400 kartel banatuko dira murgildu zaitez irakurketan leloarekin.

Hauek dira ' Bibliopiscina 2007 ' programan parte hartuko duten liburutegiak: Oibar, Añorbe, Artaxona, Bera/Vera de Bidasoa, Beriain, Buñuel, Burlata, Cabanillas, Cadreita, Zarrakaztelu, Caseda, Castejon, Cintruenigo, Corella, Cortes, Falces, Fitero, Fontellas, Funes, Fustiñana, Huarte, Irurtzun, Los Arcos, Irunberri, Mañeru, Marcilla, Melida, Mendigorria, Miranda Arga, Murchante, Noain, Olite, Iruña-Milagrosa, Azkoien, Zangoza, Tafalla, Tuteru, Viana eta Atarrabia.